

KANBOKO HERRIA

Pirineo Atlantikoetako departamendua

2022ko MARTXOAREN 28ko HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIEN BILKURA AGIRIA

Bi milla hogeita bigarren urteko Martxoaren hogeita zortzian behar bezala deitua izan zen herriko kontseilua Herriko Etxean bildu zen, Christian DEVÈZE auzapeza zen mahaiburua. Bilkura 19:00tan hasi zen.

Presente ziren : Christian Devèze, auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Mme Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, axuantak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku (19:40tatik goiti), Corinne Othateguy, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus (20:30ak arte), Isabelle Ayerbe, Maud Gastigard, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Alain Boscq hautetsiak.

Ez ziren presente edo ez zirela etorriko jakinarazi zuten : Jean-Paul Eyherachar, Jean-Jacques Lassus (20:30tatik goiti), Jean-François Lacosta, Roger Barbier, Carmen Gonzalez, Lilian Hirigoyen, hautetsiak.

Ahalordez : Jean-Paul Eyheracharrek Christian Devèze-i, Jean-Jacques Lassus-ek Nicole Amestoy-ri (20:30tatik goiti), Jean-François Lacostak Peio Etchelekuri, Roger Barbierrek Bernadette Remeau-ri, Carmen Gonzalezek Christiane Hargain-Despéries-ri, Lilian Hirigoyenek Nathalie Aïçaguerre-i.

- **Bilkurako idazkariaren izendapena.**

Presente ziren partaideek **aho batez** Isabelle Ayerbe bilkurako idazkari izendatu dute.

18- 2022ko aurrekontuen orientabideak (txostengilea Aizpuru Anderea).

Tokiko Elkargoen Kodigo Orokorren L.2312-1 lege artikulua jarraituz Herriko Kontseiluari aurrekontuen orientabideari buruzko txosten bat aurkeztu zaio.

Herriko kontseiluari aurrekontuen orientabideari buruzko eztabaida kontutan hartzea eta dagokion txostenari buruz erabakitzea galdegin zaio.

Aho-batez kontutan hartua izan da.

19 – Urbeltz bidexkako lursail bat erosketa (txostengilea Magis Jauna)

Herriko Kontseilua Urbeltz bidexkan den lursail baten erosketari buruzko iritzia ematera gomitatua da. Lursail kadastratuak, AOn°0002 sekzioa, 12 589 m²-ko azalera du eta 3000€ko prezioa. Erosketarekin Kanboko herriak bidexka horretan lur-erreserbaren iraupena segurtatu lezake.

Gehiengoarekin onartua izan da.

Bozkan ez du parte hartu: Peio Etchelekuk.

Abstenitu dira: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Lilian Hirigoyen, Alain Boscq.

20 - SPEDA: jabego publikoaren aldi bateko okupazioaren hitzarmena (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseiluari Auzapezak SDEPA delakoarekin hitzarmena izenpetzeko baimena galdegiten zaio. Hitzarmenak Gurutze Gorriak erabiltzen duen eraikinaren teilatuaren parte baten aldi bateko okupazio pribatua arautuko du. Sintesi ohar argigarriaren eranskinean aurkeztu bezala, sare publikoari lotua litzatekeen panel fotovoltaikoaren instalatze eta ustiatzearen partaide guzien eskubide eta betebeharrak zehaztuko ditu.

Aho batez onartua izan da.

21 – Ezpeletako A.L.S.H delakoarekin finantzaketa hitzarmena (txostengilea Aristizabal Anderea).

Auzapezak Ezpeletako ALSH Farandole delakoarekin hitzarmen baten izenpedura baimentzera gomitatua da Herriko kontseilua. Hitzarmenean egitura horretan parte hartzen duten Kanboko hurrek ordainduko duten kostua finkatuko da. Adostutako prezioa haur bakoitzarentzat eguneko 10€takoa da.

Aho batez onartua izan da.

22 - Langilegoa: ez egote Baimen Berezien eguneratzea (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseiluari, sintesi ohar argigarriak zehazten duen bezala, Herriko langileen ez egote Baimen Berezien arrazoi, epe eta moldeei buruz iritzia emaita galdegiten zaio. Zerbitzuen antolaketari dagokion galdera denez, delibero proiektua Batzorde Teknikoari aurkeztu zaio eta honek aho batez oniritzia eman du.

Aho batez onartua izan da

23 – Langilegoa: denbora Aurrezki Kontua (txostengilea Auzapez Jauna).

Denbora Aurrezki Kontua, eskubide publikoko langileek urtean zehar erabili ez dituzten pausa egun batzuen aurrezteko dispositiboa da. Herriko Kontseilua DAKaren erabileraren moldeak zehaztera gomitatua da elkargoan . Besteak beste urtean behin eginen den orniketa prozedurari dagokiona. Zerbitzuen antolaketari dagokion galdera denez, delibero proiektua Batzorde Teknikoari aurkeztu zaio eta honek aho-batez oniritzia eman du.

Aho-batez onartua izan da

24 -Langilegoa: denbora ez osozko lanaren erregimenaren antolaketa (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko langileek, baldintza batzuekin, beraien lana denbora ez osoz egitea galdegin dezakete. Araubideak kuadro orokorra zehazten du, baina denbora ez osoaren jardueraren zehaztasunak finkatzea organo erabakitzaileari dagokio. Eskubidez edo baimenez emana delarik ere bai. Herriko Kontseilua abantailadun langile kategoriei buruz, denbora ez osoaren koziante aplikagarriari eta baimenaren iraupenari buruz, denbora ez osoaren eskaeren epeari eta berriz hartzearen baldintzei buruz iritzia emaitera deitua da. Zerbitzuen antolaketari dagokion galdera denez, delibero proiektua Batzorde Teknikoari aurkeztu zaio eta honek aho-batez oniritzia eman du.

Aho-batez onartua izan da.

25 -Langilegoa: 2022ko sasoiariak (txostengilea Auzapez Jauna).

Udan aktibitatearen gehitzea dela-eta Herriko Etxeko langile kopurua haunditzeko asmoz eta sintesi ohar argigarrian zehaztua den bezala, Herriko Kontseilua 2022ko sasoiarien lanpostuen sortzeari buruzko iritzia emaitera gomitatua da.

Aho-batez onartua izan da.

26 – Langilegoa: Lanpostuen sortzea (txostengilea Auzapez Jauna).

Herriko Kontseilua 2022ko Apirilaren lehenetik goiti denbora osoko bi lanposturen sortzeari buruzko iritzia emaitera gomitatua da:

- Komunikazio eta idazkaritza orokorraren arduradun bat
- Eraikuntza arduradun bat.

Aho-batez onartua izan da.

Jean-Jacques Lassus salatik atera da.

27 – Langilegoa: enpleatzailearen babes sozialari buruzko eztabaida (txostengilea Auzapez jauna).

Funtzio publikoaren babes sozial osagarriari buruzko 2021ko Otsailaren 17ko 2021-175 zenbakidun ordenantzaren gauzatzea dela-eta, lurraldeko elkargoen biltzar erabakitzzaileek eztabaidak antolatu behar dituzte. Eztabaidagaia babes sozial osagarriari dagokionez agenteei ematen zaizkien bermeak dira.

Eztabaida lurraldeko elkargoen biltzar erabakitzzaileen berritze orokorretik gehienez sei hilabetetara egin beharko da.

Horrela, Herriko Kontseilua gai hauen inguruko iritzia ematera bideratua izanen da (Osasuna eta Behar-orduak banaka) Lurraldeko Batzorde Sozialaren iritziarekin:

- Zenbateko parte-hartzea
- Abantailadunak: funtzionarioak, ikastun langile eta kontratupekoak,
- Parte-hartze moldeak: labelizazioa, parte-hartze barne hitzarmenak edo CDG64 delakoak gidatuak.

Herriko Kontseilua enplegatzzailearen babes sozialari buruzko ezatabaida kontutan hartzera gomitatua da.

Aho-batez kontutan hartua izan da.

Auzapezaren erabakien komunikazioa (txostengilea Auzapez Jauna).

Sintesi ohar argigarrian agertu bezala eta Tokiko Elkargoen Kodigo Orokorren L.2122-22 eta 2122-23 lege artikuluen xedapena gauzatzeko, Auzapezak 2020ko Ekainaren 11ean Herriko Kontseiluak eman zion ordezkartzari esker hartutako erabakien berri ematen du.

Gai-ordena betea izan denez, bilkura 20:40tan bukatu da.